



2061/2025 EBAZPENA, urriaren 6koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko ospitale barneko eta endoskopiako kontsulta-eremuan Digestio-aparatuko atal sanitarioko buru lanpostua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen ekainaren 9ko 1123/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko ospitale barneko eta endoskopiako kontsulta-eremuan Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko irailaren 4ko EHAA, 167. zk.; eta 2025eko irailaren 11ko BOE, 219. zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun balioduneko epea ezartzen da eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko urriaren 3an amaitu da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen zerrenda onartuz, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:


Lehenengoa.– Barrualde-Galdakaoko ESiko ospitale barneko eta endoskopiako kontsulta-eremuan Digestio-aparatuko atal sanitarioko buru lanpostua betetzeko deitutako lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.



Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Barrualde-Galdakaoko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Usansolon, 2025eko urriaren 6an.



Barrualde-Galdakaoko zuzendari-gerentea,
GEMMA FERNANDEZ PEÑALBA



I. ERANSKINA

BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIKO OSPITALE BARNEKO ETA ENDOSKOPIAKO
KONTSULTA-EREMUAN DIGESTIO-APARATUKO ATAL SANITARIOKO
BURUAREN LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Juan Antonio Arévalo Serna jn.

Baztertuak:

- Inor ez